

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala**

Mungiako merkataritzan eta zerbitzuen sektorean zuzeneko kontsumoa sustatzeko «Mungibonoa 2023» programaren deialdiaren laburpena. BDNS (Identif.): 692555.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/692555>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b) eta 20.8) artikuluekin bat etorrita, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke.

Bat. — Oinarri arautzaileak

Mungiako 16 urtetik gorako bizilagunek izango dute bonoaren deskontuaz baliatzeko eskubidea.

Bi. — Helburua

Mungiako Udalak merkataritza eta zerbitzuseareari laguntzea du helburu, tokiko kontsumoa sustatzeko deskontu-bonoak sortuz.

Hiru. — Oinarri arautzaileak

Deialdiari lotuta daude.

Lau. — Zenbatekoa

«Mungibonoa» izeneko 15.800 bono jaulkiko dira eta bakoitzak 5 euroko balioa izango du.

Pertsona bakoitzak —NAN bidez identifikatuta— gehienez ere 60 euroko balioa duten 12 bono eskuratu ahal izango ditu.

Bonoak deskontu gisa erabili ahal izango dira atxikitako establezimenduetan egiten diren erosketetan, era honetara:

Banaka, 15 euro edo gehiagoko erosketetarako bono bakarra erabiliz.

Gehienez 12 bonoak batera, 180 euro edo gehiagoko erosketa egitean.

Bost. — Eskariak aurkezteko epea

Programari atxikitzeko eskabideak aurkezteko epea 5 egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Mungian, 2023ko apirilaren 28an.—Ekonomia-Sustapena, Turismo eta Enpleguaren; antolaketa eta Baliabide Orokor, komunikazio eta gardentasunaren; Kirolen eta Gazteriaren Arloetako zinegotzia, Nagore Torre Ureta